

“KOSMODISEAK IKASLEENGAN ERANTZUKIZUN PERTSONALAREN ETA TALDEKO ERANTZUKIZUNAREN BALIOA INDARTZEN DU”



M^a Cristina Aldasoro Ruiz - La Salle Berrozpe | Zikloak [2. saria] [3. saria]

Cristina Aldasoro La Salle Berrozpeko “Kosmos” eta “Los Despistaos” taldeen arduraduna da. Horiek lortu dituzte Zikloak kategoriako bigarren eta hirugarren postuak. *“Lehenengo ediziotik hartu dugu parte eta, beraz, Kosmodisean parte hartzea oso positibotzat dugu”,* adierazi du irakasleak. Aitortu duenez, hasieran ikasleei ikasgelan egin ohi dutenaren “txipa” aldatzea kostatzen zitzairen arren, *“abenturan zehar jarrera berriak hartzen, ekintzaileago izatearekin lotutako lanerako moduak eskuratzen eta teknologia digitalarekin lotutako gaitasunak areagotzen joan dira”.*

Cristina Aldasorok adierazi du hasieran iruditzen zitzaizela gauzei amaiera ematea ez zela garrantzitsua, *“baina planetak igarotzen doazen heinean, ikasleek taldean parte hartzeko eta lana amaitu eta garaiz entregatzeko konpromisoa bereganatzen dute”.* Eta gehitu du: *“Gure ikastetxean jarrera eta balio horiei garrantzi handia ematen diegu eta, hori dela eta, interesgarria iruditzen zaigu Kosmodisean parte hartzea. Ikasleak ez dira ohartzen faseetan*

zehar gertatzen den 'aldaketa' horretaz, baina hausnarketa hori azaleratzen da parte-hartzeari eta egindako lanari buruzko amaierako ebaluazioa egiten dugunean”.

- Zure ustez, zein izan da ekimen honen alderdi interesgarriena ikasleentzat?

- Hainbat soinu, irudi eta bideo-aplikazio ikasi dituzte, eta horiek beren bizitza pertsonalean ere erabilgarri izango zaizkie. Gainera, gaitasun pertsonalei dagokienez hobera egin dute hasieratik, parte-hartzaile bakoitzarentzat saria irabazteko aukera gehituta.



- Nola jaso dituzte ikasleek lortutako emaitzak?

- Nire taldeetako ikasleak enpresetan dihardute praktika-aldia egiten eta horregatik ez ziren amaierako ekitaldira bertaratu. Ez zuten jakin saria jaso zutela, nik mezua bidali nien arte. Gehienek berehala erantzun zidaten, atzerrian praktikak egiten ari den ikasle batek ere. Poz handia hartu dute.

- Kosmodiseako 2011-2012 edizio honetan hainbat aldaketa txertatu dira, hala nola, Grapho Planeta fasea gehitzea edo wikiei garrantzi handiagoa ematea. Zer iruditu zaizkizue berrikuntza horiek?

- Aurkezten den “produktuaren” azken emaitzaren ordeztaldeen lan etengabea baloratzea ongi iruditu zait, bidezkoagoa dela uste baitut. Hobetzeko alderdi gisa, ikasleei wikiaren helburua eta fase horretan lan egiteko modua zein zen ulertzea kostatu zaiela aipatuko nuke. Gainera, denbora luzea hartu diela iruditu zait.

Gainera, gogorarazi behar da Kosmodiseako edizio honetan parte hartu duten La Salle Berrozpe ikastetxeko talde batzuek beren proiektuak ingelesez aurkeztu dituztela. Ildo horretatik, La Salle Berrozpek Kosmodisean parte hartu izanaren arduradunek adierazi dutenez, *“euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez parte hartzeko aukera ematea oso interesgarria da, ikasleak erosoago senti baitaitezke lanak egitean eta, gainera, Kosmodisea txertatzeko ikasgai edo moduluen aukera zabaltzen da: euskara, ingelesa, gaztelania, informatika, enpresa edo ekintzailtza, besteak beste”*. *“Gure kasuan”, gehitu du, “heziketa-zikloetako taldeek euskaraz eta gaztelaniaz, baita bi hizkuntzetan ere, parte hartzea erabaki dute”*. *Batxilergoan, “mundu garaikidearen zientziak” ikasgaiaren barnean parte hartu dugu eta, ingelesez irakasten denez, ikasleek hizkuntza hori erabili dute proiektuetan”*.

- Zeintzuk dira, zure ustez, eredu hirueledun horrek sorrarazten dituen alderdi positiboak?

- *Gure ustez, abantaila nagusia da Kosmodisean parte hartzeko hizkuntza aukeratu ahal izateak ikasleei komunikazio-gaitasuna naturaltasunez garatzeko aukera ematen diela eta Euskadin proposatuta dagoen moduan, hori hiru hizkuntzatan egin daiteke.*

- Eta zein da desabantaila nagusia?

- *Desabantaila nagusia ebaluatzeko garaian datorrela uste dugu, lan horiek ebaluatuko dituzten ikasleek mezua ulertzeko ahalegin handiagoa egin behar baitute eta horrek, gure iritziz, kaltegarria da Kosmodisean ingelesa erabiltzen duten taldeentzat.*

- Zure ustez, zein balio onuragarri lor daitezke Kosmodisean parte hartzean?

- *Aurretik aipatu badut ere, laburbilduz, eta orokorrean, balio positiboak, besteak beste, lantaldean parte hartzearekin, berrikuntza eta hobekuntzarekiko jarrerarekin, egin duten lana baloratzekoan kritikoak eta zintzoak izatearekin lotutakoak dira. Baina, batez ere, norberaren eta taldearen erantzukizunaren balioa azpimarratuko nituzke.*

- Zein alderdi da, zure ustez, Kosmodisea 2011-2012ko onena? Eta zein alderdi dira hobetu edota aldatu beharrekoak?

- *Orokorrean, proiektu osoa gustatzen zait eta, irakasle bezala, erronka gustatu zait, nahiz eta heziketa-zikloetan zailagoa den moduluetakoa curriculumean txertatzea. Kosmodisean parte hartzea eduki teknikoekin batera egin behar dugunez, lehiaketari eskaini diezaiotzekun denbora orekatu behar da.*

Hobetzeko alderdi gisa, nik talde bakoitzak landu behar duen ideia askatasunez hautatzeko aukera izatea aipatuko nuke, hartara, ez dute lau ideia irabazleen artean aukeratzeko beharra, Zikloak fasean behintzat. Horrez gain, entrenamendu faseko eta Grapho Planeta faseko lanbolumena arintzea eskatuko nuke eta fase bakoitzaren helburua argitasun eta zehaztasun handiagoarekin azaltzea.

- Parte hartuko al duzue Kosmodiseako datorren edizioan?

- *Ahal izanez gero, parte hartuko dugu.*